

URUMEAKO **kronika**

2017/01/17



PDF

HERNANI Urtarrilak 17



Astigartarrak bakailu tailerrean.

[albisteak](#)//ASTIGARRAGAKO TXOTX IREKIERA TXOTX DENBORALDIA 2017

Herritarrek protagonista, aurrenekoz; Eneko Atxa, «ekoizleen ahotsa», irekieran

Dagoeneko hain ezaguna den «gure sagardo berria» esaldia oihukatuz eman zion hasiera txotx denboraldiari Eneko Atxa sukaldariak asteazken goizean. Arratsaldean, aldiz, herritarrekin batera gozatu zuten sagardogileek, Murgia Jauregian.

ASTIGARRAGA

Martxan da 2017ko txotx denboraldia. Asteazkenean izan zen irekiera ekitaldia: sagardo berriaren ezaugarriak azaldu zituzten lehendabizi; eta ondoren, tradizioa bihurtu den sagarrondoa landatu zuen Eneko Atxak, aurtengo protagonistak. Azurmendi jatetxearekin lortu ditu Michelin izarrak sukaldari bizkaitarrak, eta ederki asko ezagutzen ditu ostalaritzaren nondik norakoak. Aurkezpenean azaldu zuen moduan, ohorea izan da Atxarentzat, denboraldiari hasiera ematea: «ohore bat da ekoizleen ahotsa izatea eta era berean, erantzukizuna ere sentitu dut. Errekonozimendua egin nahi diet ekoizleei, badakidalako txotx bakoitzaren atzean istorio politak daudela, baina gogorrak baita ere». Zapiain sagardotegia izan zen aurten, irekieraren eszenatoki: sagardo tragoa eskuan hartu eta «gure sagardo berria» oihu eginez ireki zuen Eneko Atxa denboraldia. Hogeita lau urte dira dagoeneko, Sagardo Berriaren Eguna ospatzen dela.

«Sagardoaren kultura etengabe bultzatu da»

Prentsaurrean elkartu ziren erakunde ezberdinetako ordezkariak, Sagardoaren Lurraldeko ordezkaria eta Eneko Atxa bera. Horien artean zen Zorione Etkezarraga, Astigarragako alkate ordea. Denboraldi berriari ongi etorria egin, eta orain arteko ibilbideak izan duen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen: «24 urte daramazki Astigarragak txotx denboraldiari hasiera ematen, honek esan nahi du herri honetako elkarte, bizilagun eta gonbernuan egon diren ordezkari ezberdinei esker sagardoaren kultura etengabe bultzatu dela».

Etkezarragak azaldu nahi izan zuen baita ere aurtengo berrikuntza: «egun honetan urtero jarraitzen den protokolo eta bazkariaz gain, aurten Txotx Berri Herrikoia antolatu dugu, sagardo denboraldia herritarrei ere gerturatzeko asmoarekin, astigartarrak ezinbestekoak baikara sagardo kulturaren sendotzean». Hala, arratsaldean Murgia Jauregian elkartu ziren herritarrak, bakailu tortillaren tailerrean lehendabizi; eta ondoren, pintxo eta sagardo dastaketa izan ziren. Astigar asko izan ziren animatu eta irekiera herrikoian parte hartzera gerturatu zirenak.

 **ARGAZKIAK:** Astigarragako Txotx Irekiera 2017

ARGAZKIAK



 Atsegin dut  0

[Txiokatu](#)

Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*



reCAPTCHA erronka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzailerak](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)

Bidali

Aurreikusi



GEHIGARRI BEREZIA





HERNANI
Urtarrilak 17

Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

Puri-Purian

Bi urteko haurrak ... (1)

Zientzia eta kultura ... (1)

Arte sorkuntzarako dirulaguntza ... (1)

Jan-edan eta musikaz ... (1)

Salba dezagun Iruña-Veleia (1)

«Elkartearen helburua da ... (10)

Magia eta ilusioa, ... (2)

Arte plastikoak sustatzeko, ... (1)

Artista plastikoei, laguntza ... (1)

Egitarau bateratua, oporrak ... (1)

Gida komertziala

[Bilatu](#)

Iragarki merkeak

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.

Telefonoa: 616886660

[+ Ikusi](#)

Tweets por [@KronikaNet](#)

Gaur



6°

1°

Bihar



2°

-1°

Etzi



4°

-3°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Ura atera da Urumea ba...



Astigarragako Txotx Ir...



Wukroren aldeko IV. Sa...



Gabonak 2016



Oroimena berreskuratuz



Txantxillako Festak 2016

Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016




Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA

URUMEAKO
kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus



LAGUNTZAILEAK



**DOBERA
KRONIKA
BAZKIDEAK**

Legezko oharra